

Euskaltegietako ikasleendako ipuin lehiaketa

Egitasmoa: Altsasuko, eta Sakanako, euskaltegietako ikasleei ikasitakoa agertzeko modua eskaini ipuin lehiaketa baten bidez.

Zergatia: Ikasturte guztia euskaltegian ematen duten pertsonen ahalegina onartzetik dator lehiaketa hau. Euskara ikasteko hartu duten konpromisoa onartzetik. Haiei guztiei ikasitakoa erakusteko modu bat eskaini nahi diegu. Ez dezatela pentsa euskaltegiko lau ormetatik kanpo ez dela euskararik. Pertsona horiek euskaraz komunikatzeko gaitasuna lortu dutela ere azaldu nahi diegu.

Urtean zehar egindako ahalegina paperera eraman eta gainera sari bat eskuratzea motibagarria izan daitekeela uste dugu. Gainera, kurtso akaberan kokatu dugu, piperra egiten hasten diren garaia delako. Azken unera arte, euskara ikasketa ordu guztiak bete ditzaten gonbitea ere izan nahi du ipuin lehiaketak.

Bide batez, haien euskaltegitik kanpo jendea ere euskalduntzen ari dela jakinarazi nahi diegu euskara ikasten ari diren pertsoneri. Ahalegin horretan jende asko dagoela senti dezatela.

Lehiaketa Kima Euskara Taldeak deitzen du, Altsasuko Udalaren eta Sakanako Mankomunitatearen laguntzarekin.

Bideak:

- Kima euskara Taldeak lehiaketaren oinarriak osatu eta epaimahai kideak izendatuko ditu. Azken horiek mankomunitateko teknikarien bidez lotuko ditugu.
- Altsasuko euskaltegietako arduradunei lehiaketaren berri emanen zaie.
- Lehiaketak arrakasta izan dezan, euskaltegiko irakasleen inplikazioa bilatuko da. Ipuinak klasean lantzeko metodologia bat proposatuko zaie irakasleei.
- Euskaltegietan lehiaketaren oinarrien hainbat kopia emanen dira, ikasleen artean banatzeko. Iruñerriko eta Lazkaoko euskaltegira informazioa postaz bidaliko da.
- Ipuin lehiaketaren berri prentsan zabalduko da.
- Ipuinak jaso eta zuzentzaileei banatuko zaizkie.
- Behin epaia izanda, ekitaldi publiko batera deituko ditugu ikasleak sari banaketa egiteko.
- Ipuinak publikatu.

Baliabideak:

- Giza baliabideak: Euskara taldeko kideak
Euskaltegietako irakasle eta arduradunak
Mankomunitateko teknikariak. (epaileak topatzeko).
Epaimahaiko kideak

- Baliabide materialak: Oinarrien kopiak
Ipuinak sortzeko metodologia proposamenaren kopiak.
Prensa oharra bidaltzeko bitartekoak.
Ipuinen kopiak epaimahaikideentzat.
Ikasle guztientzat sari bana.
Sari nagusia.
Sari banaketa egiteko egoitza.

- Baliabide ekonomikoak: Kimaren medio propioak.

Kima, Altsasuko Euskara Taldea